

ARAUDIA

ELGOIBARREN 2010eko IRAILAREN 11n EGINGO DEN KROSARENA

- Lasterketa herrikoi hau herri barruan egingo da, 7km-ko zirkuitu batean. Irteera ordua 20:00ean izango da, eta lasterketa Foruen plazan hasi eta bukatuko da.
- Lasterketan 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, hau da, 1994 urtean edo urte hori baino lehenago jaiotakoak.
- Lasterketan parte hartu ahal izateko, izena eman beharko da irailaren 6a, astelehena, baino lehen (egun hori barne). Izena emateko 12 € ordaindu beharko dira. Lasterketa egunean bertan posible izango da izena eman 15€ ordainduta. 300 atletarentzako lekua izango da.
- Izena www.mintxeta.com webgunean eman beharko da. Bertan, www.turesultado.com edo www.herrikrosa.com webgunerako zuzeneko esteka jarriko da. Eskatutako datu guztiak eman beharko dira bertan. mintxeta@mintxeta.com helbide elektronikoan ere izena eman ahal izango da.
- Dorsalak eta txipa irailaren 10ean, ostirala, jaso ahal izango dira lasterketaren karpa ofizialean (Leku-Eder parkea), 18:00etatik 20:00etara bitartean. Dorsalak eta txipa lasterketaren egun berean ere jaso ahal izango dira (Foruen plaza) 18:00etik aurrera, eta 20:00ak arte.
- Ezinbestekoa izango da txipa dorsalaren barruan sartzea, eta helmuga igaro bezain laster itzultzea.
- Mailak:
 - o Juniorrak: 16 urtetik 20 urtera (1994 eta 1990 urteen artean jaiotakoak, biak barne).
 - o Seniorrak: 21 urtetik 40 urtera (1989 eta 1970 urteen artean jaiotakoak, biak barne).
 - o Beteranoak: 41 urtetik aurrera (1971n eta aurreko urteetan jaiotakoak)
- Irabazle absolutuei, bai gizonei, bai emakumeei, garaikurra eta txapela emango zaizkie. Maila bakoitzeko lehenengo hirurei ere garaikurrak emango zaizkie.
- Partehartzaile guztiei lasterketa gogorarazteko elastiko tekniko bat emango zaie opari. Horretaz gain, korrikalarietako produktuz betetako poltsa bat jasoko dute, helmuga zeharkatu bezain laster, txipa itzuli ostean.
- Sariak banatu ondoren, produktu gehiago zozketatuko dira partaide guztien artean. Saria jaso ahal izateko, korrika egiteko erabili den dorsala aurkeztu beharko da.
- Lasterketan parte hartu duten guztiak Olaizaga kiroldegian dutxatu ahal izango dira.
- Izena eman duten atleta guztiek istripu-aseguru bat izango dute. Aseguruaren gastuak antolatzaileek ordainduko dituzte.
- Proba honetan parte hartzeagatik bakarrik, araudi hau onartu beharko da.
- Araudi honetan aurreikusi ez diren gauza guztietarako IAAFren araudian ezarritakoa izango da kontuan.

Elgoibarren, 2010eko uztailen

ATLETISMO JAIAREN EGITARUA

- Karpa bat izango da irailaren 10etik (ostirala) irailaren 11ko (larunbata) gauera arte.
- Bai ostiralean, bai larunbatean (lasterketa bukatu ondoren) karpa ofizialean afaltzeko aukera izango da. Menua 9 eurokoa izango da: Eusko-labeldun saiheskia, entsalada, patatak, izozkia eta kafea. Edaria ez dago prezioaren barruan sartuta. Pintxoak dastatzeko aukera ere izango da.
- Ostiralean eta larunbatean bertsolariak eta musika ekitaldiak izango dira.
- Larunbatean, 18:00ean, haurrentzako lasterketa bat izango da (15 urtera arte). Hurrek aitarekin edo-eta amarekin parte hartu beharko dute. Lasterketa bukatutakoan, opariak egongo dira haur guztientzat.

ZIRKUITUA
(BIRA TXIKI BAT + 2 BIRA HAUNDI)

BIRA TXIKI BAT

- FORUEN ENPARANTZA
- SAN BARTOLOME KALEA
- PEDRO MIGUEL URRUZUNO ETORBIDEA
 - ANBULATORIOKO ERROTONDA
- PEDRO MIGUEL URRUZUNO ETORBIDEA
 - EGOTOKI
 - SAN FRANTZISKO KALEA
- NAFARROAKO ENPARANTZA
- GABI JATETXEA (1. KILOMETROA)
 - ERROSARIO KALEA
 - FORUEN ENPARANTZA

2 BIRA HAUNDI

- SANTA ANA KALEA
- EROSKIKO ERROTONDA
 - ESTAZIO KALEA
- BERNARDO EZENARRO KALEA
 - TXARRIDUNA
 - IKASTOLA
- GABRIEL KUTZELAEGI KALEA
- INIGUEZ DE KARKIZANO ETORBIDEA
 - ESKAILERAK JEITSI
- PEDRO MUGURUZA ETORBIDEA (3. ETA 6. KILOMETROAK)
 - TXARRIDUNA
- PEDRO MIGUE URRUZUNO
 - EGOTOKI
 - SAN FRANTZISKO KALEA
 - NAFARROAKO PLAZA
 - SAN BARTOLOME KALEA
- FORUEN ENPARANTZA (HELMUGA)

INSKRIPZIO ORRIA

- Izena www.mintxeta.com webgunean eman beharko da. Bertan, www.turesultado.com edo www.herrikrosa.com webgunerako zuzeneko esteka jarriko da. Eskatutako datu guztiak eman beharko dira bertan. mintxeta@mintxeta.com helbide elektronikoa ere izena eman ahal izango da.
- Lasterketan parte hatu ahal izateko, izena eman beharko da irailaren 6a, astelehena, baino lehen (egun hori barne). Izena emateko 12 € ordaindu beharko dira. Lasterketa egunean bertan posible izango da izena eman 15€ ordainduta.
- Inskripzioa KUTXA-ren 2101 0036 67 0011196953 zenbakidun kontuan ordaindu beharko da. Horretarako, izen-abizenak eman beharko dira.
- Ordaintzeko lekua
 - o Abuztuko 16tik 27ra Elgoibarko Kutxa ofizinan edo kajeroan.
 - o Irailak 1,2,3,6 eta 7 arratsaldeko 18:30tik 20:30tara Mintxeta Atletismoko Taldearen ofizinan
 - o Beste herriko Kutxako edozein ofizinatik edo kajerotan trasferentzia eginez
 - o Internetetik trasferentziaz.
 - o Proba egunean ordu bete baino lehen (beharrezkoa izango da epe barruan inskripzioa edukitzea)

Helbide honetara bidali: mintxeta@mintxeta.com.

Izen-abizenak	
Herria:	Herrialdea:
Jaiotze data:	Telefonoa:
Helbide elektronikoa:	
Kategoria:	
Kluba (izan eskero):	